

# EUSKOTRENEK URTARRILAREN 30EKO GREBA OROKORREKO EGUNEAN GUTXIENENKO ZERBITZUAK BERMATUKO DITU

Euskotrenek ostegunerako (urtarrilak 30) deitutako Greba Orokorrerako Eusko Jaurlaritzak ezarritako gutxieneko zerbitzuak bermatuko ditu. Euskotreneko lanegunetako zerbitzuen %30a eskainiko da.

## TRENA

**Ondorengo lineetan orduro tren batek zirkulatuko du noranzko bakoitzean:**

- E1 Matiko/Bilbao - Amara/Donostia (Deba eta Zumaia arteko geltokien arteko garraio aldaketak jarraitzen du)
- E2 Topo (Lasarte/Oria - Hendaia)
- E3 Txorierra (Kukullaga/Etxebarri - Lezama)
- E4 Matiko/Bilbao - Bermeo
- E5 Altza - Amara

## LARREINETAKO FUNIKULARRA

Irteerak: 4:50, 7:10, 8:00, 9:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 18:00, 20:00 eta 23:00.

## TRANBIA

Bilboko eta Gasteizko tranbietako %30a zirkulatuko du. Ordu-tegiak ohiko tokietan ikus daitezke (geralekuak, APP, web, twitter, etab.)

## AUTOBUSAK

Bizkaian (Bizkaibus) eta Gipuzkoan (Lurraldebus eta Eibarko Udalbus) kudeatutako autobusen lineetan gutxieneko zerbitzuak ere eskainiko dira.

**Autobusez burutzen diren tren-bus zerbitzuetako gutxieneko zerbitzuak ondorengoak izango dira:**

- Usansoloko Ospitalerako tren-bus zerbitzua: 30 minuturik behin
- Zamudioko Teknologi Elkartegirako tren-bus zerbitzua: goizean bi irteera geltokitik (7:22 eta 8:07). Arratsaldean bi irteera elkartegitik (16:55 eta 17:55).

Erabiltzaileek ordutegiak jada ikusi ahal izango dituzte **[www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus)** web gunean, APP ofizialean, **@euskotrenEJGV** twitter gunean. Horrez gain, Euskotreneko informazio telefonoa eskura izango dute **944 333 333**.

Igorpen data: asteartea, 2020ko urtarrilaren 28an

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO